# EMAKUMEEN JAKINTZA ETA HAIEN EKARPEN SOZIAL ETA HISTORIKOA INTEGRATZEA. LEHEN HEZKUNTZA

## AURKITU EGINGO DITUGU



### NORTZUK IZATEN DIRA IPUINETAKO PROTAGONISTAK?

Lehen Hezkuntzan, ipuinak bizitzarako ikasteko baliabideak dira oraindik ere. Horregatik, funtsezkoa da ipuinak analizatzen jarraitzea eta ipuinetan dauden sexismoa eta alternatibak, biak, erakustea.

**HELBURUA**

- Ipuinetan dagoen sexismoa analizatzea.
- Berdintasuna sustatzen duten ipuinez gozatzea.
- Errespetuz eta elkarrizketarako jarrera irekiaz parte hartzea.
- Jarrera enpatikoa agertzea.

**GARAPENA**

Jarduera honi ekin aurretik, komeni da  ariketa egitea, giro lasaia lortzeko eta ikasleak era horretako jardueretara ohitzeko.

Haurrek gure ikasleen adina eta beste adin batzuk dituztenean, ipuinak baliabide paregabeak dira gai askori heltzeko. Guk berdintasunari heltzeko baliatuko ditugu. Askotan aurkitzen gara ageriki sexistak diren ipuinekin, baina beste askotan ez gara sexismo horretaz ohartzen.

Ia ipuin tradizional guztiek sustatzen dute sexismoa, ezaugarri fisikoei erreferentzia egiten baitiete (neskak politak eta mutilak indartsuak) eta gainerakoak ikusezin egiten baitituzte (potoloak, handiak, txikiak, beltzak, dibertsitate funtzionala dutenak, homosexualak...). Gainera, maitasuna proiektu zentrala da, baina emakumeentzat bakarrik. Ipuinen bitartez bestelako erreferente batzuk eman behar ditugu; genero-estereotipoak hautsiko dituzten kontakizunak bilatu behar ditugu.

Ipuinetan dagoen sexismoa aztertzen joateko, ikasleei etxetik ipuin bat ekartzeko eskatuko diegu: askotan irakurri duten, atsegin duten eta beraientzat esanguratsua den ipuin bat ekarri behar dute.

Ikasle guztiek ipuinak ekarri dituztenean, ipuina guk emandako fitxari jarraikiz analizatzeko esango diegu. Hasi baino lehen, talde handian irakurriko ditugu galderak, argi gera dadin zer aztertu behar duten beren ipuinetan. Jarraian, 15-20 bat minutu emango dizkiegu fitxa betetzeko. Gero, gainerako ikasleekin partekatuko dute. Aurkezpen horretan ez dute ipuina irakurriko; aitzitik, azkar-azkar laburtu eta fitxan jarri dutena adieraziko dute. Ikasle batek baino gehiagok ipuin berbera ekarri badute, batera egin dezakete aurkezpena, nahiz eta fitxa bakoitzak bere aldetik bete behar duten.

Azkenik, ikasleekin aztertuko dugu nola identifika daitezkeen hezkidetzako ipuinak. Hezkidetzako ipuina izateko, baldintza hauek bete behar ditu:

- Protagonista femenino eta maskulinoak eduki behar ditu.
- Ez du estereotipo sexistarik izan behar.

## EMAKUMEEN JAKINTZA ETA HAIEN EKARPEN SOZIAL ETA HISTORIKOA INTEGRATZEA. LEHEN HEZKUNTZA

- Nesken eta mutilen arteko berdintasuna sustatu behar du.

Jarduerari amaiera emateko, hezkidetzako ipuin bat aukeratu dezakegu guk aztertutakoa beste ipuin batzuetan egon badagoela erakusteko, bereziki hezkidetzakoa den ipuinik ekarri ez badute.

- “Ipuin, liburu eta film moreen gida” dagoen baliabideetatik aukera ditzakezue ipuin egokiak http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20191206/Ipuin_liburu_eta_film_moreen_gida_hezkidetza_sustatzeko_

**IRAUPENA**

Dinamikak ordubete inguruko saioa har dezake.

**BALIABIDEAK**

- Eranskina: “Nortzuk izaten dira ipuinetako protagonistak?”
- “Ipuin, liburu eta film moreen gida”

**GEHIAGO JAKITEKO:**

- Granadako Diputazioaren “La mochila violeta” Haurrentzako Irakurketa Gida: https://www.educandoenigualdad.com/2015/02/10/la-mochila-violeta-guia-de-lectura-infantil/

Bertan, adin guztietako haurrei zuzendutako hezkidetzako ipuin ugari daude.